

UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBARI BURUZKO POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas

**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBARI
BURUZKO POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA**

Eginbidea, Idazkaritza Exekutiboarena, zeinaren bidez jasotzen baita posizionamendu hau 2019ko apirilaren 25ean egindako 65. Batzar Nagusi Arruntean onetsi zela, lehendakariaren oniritziarekin.

José María Rosell Bueno

*Unibertsitate Publikoetako
Ikasleen Ordezkarien
Koordinakundeko idazkari
exekutiboa*

Pablo Alcaraz Martínez

*Unibertsitate Publikoetako
Ikasleen Ordezkarien
Koordinakundeko lehendakaria*

AURKIBIDEA

1. Sarrera	2
2. Zer eredu nahi dugun	2
3. Ondorioak	4



1. Sarrera

Unibertsitatean sartzeko proben eredu berria —Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko amaierako ebaluazioak (USE) arautzen dituen 310/2016 Errege Dekretuaren bidez onetsia eta Unibertsitatean sartzeko Batxilergoaren amaierako ebaluazioaren zenbait alderdi garatzen dituen 47/2017 Aginduaren bidez arautua— unibertsitateko komunitatearen parte-hartzerik gabe landu zen.

Egoera horrek ziurgabetasuna sortzen du etorkizuneko ikasleengan, ez baitakite nola garatuko diren proba horiek; izan ere, ez da bermatzen objektibotasuna ikasleen ebaluazioan, irizpideak ez baitaude estandarizatuak autonomia-erkidegoen artean.

2. Zer eredu nahi dugun

Gure ustez, funtsezkoa da unibertsitatean sartzeko prozesuak ez eragitea aurkezten direnei beren genero, ideologia, jatorri, sexualitate, erlijio edo bestelako egoera fisiko, psikologiko edo sozialarengatik, eta, beraz, uste dugu zuzenketa irizpide objektibo eta kuantifikagarriak bermatu behar direla.

Horrenbestez, eskatzen dugu sarbide-probak Estatuko lurralde osoan parekoak izatea edukiari eta formari dagokienez, eta, horretarako, beharrezkoa da proben koordinazioa bermatuko duten prozedurak ezartzea. Hezkuntzaren arloan eskumena duen ministerioak antolatu behar du hori, autonomia-erkidegoak biltzen baititu, eta horiek dira unibertsitateko komunitatearekin gutxieneko eduki batzuk adostu behar dituztenak unibertsitatean sartzeko ebaluatu beharreko gaiak homogeneizatzeko, Estatuko ikasle guztiek prestatzeko eta sartzeko aukera berberak izan ditzaten.

Gaitasun orokorren ebaluazioaz gain, ikasitako jakintza-arloaren gaiekin lotutako alderdiak ebaluatu behar dira proba horretan. Hizkuntza koofizialen ebaluazioa ere bermatu behar da, baita probak hizkuntza horretan egiteko aukera ere.



Unibertsitatean sartzeko batez besteko notan eragina duten parteen pisuari dagokionez, uste dugu, sarbide-probaren bidezko sistematik datozen ikasleen kasuan, orain dagoen bezala mantendu behar dela:

- Batxilergoko batez besteko nota: 6 puntu.
- Fase orokorraren nota: 4 puntu.
- Fase espezifikokoaren nota: 4 puntu.

Bestalde, ikasleek aukera izan behar dute proba beren bizilekutik gertu dagoen toki batean egiteko, goi mailako hezkuntzara sartzeko aukera-berdintasunaren irizpidea berma dadin, eta, edonola ere, Batxilergoko ikastetxeetatik garraio publikoa eta doakoa ziurtatu beharra dago. Autonomia-erkidegoen arteko lankidetzaren sistema bat ezarri behar da, deialdi bakoitzeko saiakera-kopurua bakar batera mugatzeko Espainiako lurralde osoan, desoreka sozioekonomikoak saihesteko xedez.

Era berean, uste dugu unibertsitatean sartzeko probek tasarik gabekoak izan behar dutela, pertsona guztiek unibertsitatean sartzeko aukera izan dezatela bermatzeko, beren maila sozioekonomikoa edozein dela ere, errenta-atalase baxuenak dituzten familientzat oztopo gaindiezina diren kostuak kenduta.

Tasa horiek kendu arte, eskatzen dugu aurrekontu autonomikoetan partida bat esleitzea kostuak ordaintzeko beketarako, ekonomikoki zenbateko hori beren gain hartu ezin duten ikasleentzat. Halaber, uste dugu autonomia-erkidegoek aldian-aldian txosten bat argitaratu beharko luketela sarbide-probaren kostuari eta tasen bidez lortutakoari buruz, gardentasuna bermatzeko.

Azkenik, probaren edukia edo forma aldatzen bada, proba egin aurreko bi ikasturteetan gauzatu beharko da, ikasleek hasieratik jakin dezaten zein probari egin behar dioten aurre, eta irakasle taldeek egokitzapenaldi bat izan dezaten probaren gai-zerrendarekin eta formarekin bat datozen irakaskuntza-planak prestatzeko.



CREUP

Coordinadora de Representantes de
Estudiantes de Universidades Públicas

**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBARI
BURUZKO POSIZIONAMENDU AKADEMIKOA**

Beharrezkoa izanez gero, proba honek behar diren berrikuspeneko eta zuzenketa bikoitzeko metodoak izan behar ditu, unibertsitatera sartzen den ikaslea ebaluazioarekin ados ez badago, bere proba modu erraz eta objektiboan berrikusteko aukera izan dezan. Gainera, gure ustez, probaren erantzunak argitaratu behar dira, ikasleak bere puntuazioaren zentzua uler dezan.

3. Ondorioak

Aukera-berdintasuna, proben eta ebaluazio irizpideen objektibotasuna eta Estatu osoan ebaluatu beharreko edukien homogeneizazioa izan behar dira gure funtsezko helburuak Espainiako Unibertsitate Sistemari (EUS) dagokionez.